

2011 KO ORDENANTZAK

AUTO ZERGA

A) TURISMOAK	
8 zaldi fiskaletik beherakoak	23
8-11,99 zaldi fiskal bitartekoak	65
12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak	125
14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak	142
16-19,99 zaldi fiskal bitartekoak	180
20 zaldi fiskaletik gorakoak	240
B) KAMIOIAK	
1000 kg. beherako zama	82
1000-2999 kg. bitarteko zama	164
3000-9999 kg. bitarteko zama	230
9999 kg.-tik gorako zama	290

C) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaletik beherakoak	32
16-25 zaldi fiskal bitartekoak	52
25 zaldi fiskaletik gorakoak	162
D) BESTE IBILGAILU BATZUK	
Ziklomotoreak 125 c.c.-tik beherako	8
125-250 c.c. bitartekoak	14
250-500 c.c. bitartekoak	28
500-1.000 c.c. bitartekoak	68
1.000 c.c.-tik gorakoak	120

ZABORRAK

Etxebizitzak	70
Taberna eta jatetxeak	170
Merkataritzako lokalak	170
5 behargin arteko industria eta lantegiak	252
6 - 10 behargin bitartekoak	385
11 - 25 behargin bitartekoak	514

ESTOLDERIA Urteko kuota 20 €-koa izango da.

URA ETA SANEAMENDUA: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Tarifak
H.O.Z . Higiezin Ondasun Zerga (I.B.I.) : 2011. urteko hiri-lurreko tasa % 1a izango da, eta landa lurrekoa %1,2

HEMEN DAUKAGU 2011KO AURREKONTUA

SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	EUROTAN
I	Zuzeneko zergak (higiezinak, ibilgailuak, plusbaliak...)	64.266,00
II	Zeharkako zergak (obrak egiteagatik jasotakoak)	10.000,00
III	Tasak eta beste sarrerak (ura, zaborra, estolderia...)	19.240,00
IV	Transferentzia arruntak (Administrazioko dirulaguntzak)	554.302,00
V	Ondasuneko sarrerak (udal lokaleen alokairuak)	5.100,00
VII	Kapital transferentziak (Beste erakundeetako dirulaguntza)	93.250,00
SARRERAK GUZTIRA		746.158,00

IRTEERAK

KAPITULUA	IZENA	EUROTAN
I	Pertsonalaren ordainsariak (langileen soldata, aseguruak)	161.139,77
II	Ondasun eta zerbitzu erosketak (konponketak, erregaia...)	189.031,14
III	Finantza gastuak (maileguen gastuak)	8.130,00
IV	Transferentzia arruntak (Amankomunazgoa, Eudel, jaiak..)	98.660,94
VI	Inbertsio errealak (obrak egiteko, tresneria erosteko...)	200.317,17
IX	Finantza pasiboak (maileguen amortizazioa, interesak...)	88.878,98
IRTEERAK GUZTIRA		746.158,00

INBERTSIOAK

IZENA	EUROTAN
Iruzubietako bolatokiaren konponketa	90.000,00
Bolibar hirigunean WIFI sartzia	12.000,00
Udal ludoteka eta zinburuak (2. fasea)	7.000,00
Iruzubietako eta kanposantu osteko lurrak erostea	23.696,66
Auzunetako argiak ipintzea	37.499,94
Beste proiektu txiki batzuk (udaletxe zaharreko teilatua, Magdalena ermitako teilatua, kanposantu ondoko gas depositua, Arkupe tabernako altzariak, auzo bideak...)	30.120,57
GUZTIRA	200.317,17

Herria egiten

Ziortza-Bolibarko Udal Aldizkaria

4. zk. 2011ko martxoa



Simon Bolivar Museoa

GAIK:

- 1- Herrian egindako obra batzuk.
- 2- Ziortza-Bolibarren 2005-2011 urteetan zehar egindako proiektu garrantzitsuenak.
- 3- Ziortza-Bolibarko azken nobedadeak (taxi-bus zerbitzua, wimax konexioaren proiektua eta web gunearen berriztapena)
- 4- 2011ko Udal Ordenantzak eta Aurrekontua

Udaletik



2010-2011 URTEAN EGINDAKO OBRA BATZUK

Ziortza-Bolibarko Udalak beti izan du sensibilitatea herriko ondarea egoera onean mantentzeko. Hau dala eta, 2010ean kanposantua eta Artako basiliza eta frontoiak konpontzeko erabakia hartu zuen.

ZIORTZA-BOLIBARKO KANPOSANTUA

Ikusita kanposantua egoera txarrean zegoela, Udalak 1.999. urtean konpontzeko erabakia hartu zuen. Lehen fase honetan lurra konpondu, 54 hilobi egin eta 18 estela ipini ziren. Kostua 120.000 € koa izan zen.



2010an Udalak bigarren fasea egin du, eta lanen artean, Kanposantuko kapera, alboak eta hormaren garbiketa eta konponketa egin dira. Kostua 44.700 € koa izan da.




ARTAKO BASELIZA ETA FRONTOIA

Artako basilizari teilatu berria egin zaio eta bertoko frontoiari ere lurzorua konpondu, pintatu eta sare berria ipini zaio. Kostua 24.600 €-koa izan da.

IRUZUBIETAKO BOLATOKIA ETA APARKALEKUAK

Ziortza-Bolibarko Arau Ordezkatzaileetan Iruzubietako bolatoki-gunea aisialdirako izendatua izan zen, beraz, Udalak lur hauek erosi eta herritarrentzat prestatzea erabaki zuen. Bertan egingo diren lanak ondorengoak izango dira: bolatokia berriztu, 30 bat kotxerako aparkalekuak egin eta aterpe bat eraiki beharrezko instalakuntza guztiekin (ura, elektrizitatea...) jaietan erabili ahal izateko. Egingo den inbertsioa 180.000 €-koa izango da eta 130.000 €-ko dirulaguntzak espero dira Foru Aldunditik eta Espainiako Plan-E tik.



BI-2224 ERREPIDEA

Bolibarko herrigunea eta Iruzubieta lotzen dituen BI-2224 errepideko 1,8 kilometro inguruko zatia eraberritzeko obra hile honetan bukatuta egotea espero da. Errepide berrituaren errai bakoitzak hiru metroko zabalera edukiko du, eta alde batean metro erdiko eta bestean metro bateko bazterbideak. Azken hau, Iruzubietatik Bolibarrerako noranzkoan ezker aldean gelditzen dena, Donajakue bidea egiten duten erromesen zihurtasuna hobetzeko asmoz erabaki da zabalera horretakoa izatea. Bestalde, errai bakoitzak, alde batetik metro erdiko berma edukiko du eta bestetik euri urak jasotzeko oreka. Guztira 3,8 milioi euroko inbertsioa beharko duen obraren barruan, biribilgune bat ere eraiki da Bolibarko herri sarreran.

ZIORTZA-BOLIBARREN 2005-2011 AN EGINDAKO PROIEKTU GARRANTZITSUENAK

OBRA	FAKTURAZIOA
HERRIKO FRONTOIKO OBRA	754.053,64 €
FRONTOI ATZEKO PARKINA	323.187,06 €
IPARRAGIRREKO UR BILTEGITIK ERROTALDEKO UR BILTEGIRA URAK ERAMATEA	1.835.767,00 €
ERROTALDETIK ARTA, ZEINKA-ZEARREGI ETA ZIORTZARA URAK ERAMATEA	1.487.102,94 €
UR BILTEGITIK FRONTOIRA, HERRIKO PLAZARA ETA BEKOKALERA URA ERAMATEA (UR SARE HONEGAZ BATERA GAS KANALIZAZIOA ERE SARTU ZAN)	473.847,73 €
MADALENAN UR BILTEGIA EGITEA ETA MUXUTIK URAK BILTEGIRA ERAMATEA	1.483.931,87 €
BI-2224 ERREPIDEA KONPONTZEA IRUZUBIETATIK BOLIBARRERA	3.198.147,85 €
ZIORTZA-BOLIBARKO SANEAMENDU SAREA	4.371.177,33 €

TAXI - BUS ZERBITZUA



ZIORTZA-BOLIBARTIK MARKINARA IRTEERAK:
Astelehenetik ostiralera lanegunetan: 7:50 10:00 19:25
Ibilbidea: Bolibar - Iruzubieta - Markina Plaza
Larunbatetan eta Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

MARKINATIK ZIORTZA-BOLIBARRERA IRTEERAK:
Astelehenetik ostiralera lanegunetan: 12:00 14:25 20:05
Ibilbidea: Markina Plaza - Iruzubieta - Bolibar
Larunbatetan eta Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Linea hauen zerbitzua taxi batekin emango da, eta ordainketa 1,15 € da.

Ziortza-Bolibarko Udalatik, Taxi-Bus zerbitzu hau erabiltzera animatzen zaizue. Eta ordutegiari buruz proposamenik izan eskero, etorri Udaletxera aitzen ematera.

WIMAX KONEXIOA

2011. urtean zehar, WIMAX konexiorako 4 unitate montatu nahi dira Bolibarko hiriguneko 4 puntutan. Aldi berean, Ziortza-Bolibarko beste auzunetan (Arta, Zeinka eta Iruzubietan) beste unitate batzuk ipintzeko aukera dagoen aztertuko da. Lanak **HISPADATA SOLUTIONS S.L.** enpresak egingo ditu.

WEB ORRIA

Ziortza-Bolibarko Udalak bere webgunea berriztatu du (www.ziortza-bolibar.com). Berritasunen artean agenda, eguraldi pronostikoa eta mapa interaktiboa ikusiko dituzue.

Honetaz gainera, laster web honetan zuen izena emateko aukera izango duzue, administrazio-tramiteak online betetzeko. Horrela, web atari berriaren helburu nagusietako bat beteko da, alegia, administrazioa herritarrei hurbiltzea. Baliabide berri honi esker, erabiltzaileek kudeaketak erosotasunez egingo dituzte, denbora aurreztuko dute eta joan-etorriak saihestuko dituzte izapideak egiteko orduan, adibidez, errolda-agiria eskatzean. Aurreikuspenen arabera, gaur egun udal bulegoetan egin behar diren izapide guztiak etorkizunean herritarrek webgune honen bidez bideratu ahal izango dituzte.

